


2019

SAN PEDRO JAIAK



CELEBRACION

SAN PEDRO JAIAK 2019

EGITARUA

EKAINAK 21 OSTIRALA

17:00etan Ieltxo kultur elkarteko **kurtso amaierako emanaldia** eskolan

EKAINAK 22 LARUNBATA

08:00etan **Arrokako arrantza-lehiaketa**

Oharra: Goizean goiz hasiko da txapelketa eta parte-hartzaileek arratsaldeko seiak arte izango dute arrantzan egiteko aukera, ordutegi zabal horretan, nahi dutenean arroketa gerturatu eta saioa egiteko

12:00etan **Pala-txapelketa finala** maziza txuriarekin

16:30ean **Areto-futboleko finalak**

18:30ean Arrantzatutako **arrain-erakusketa** eta **sari-banaketa**

19:30ean **Eskuzko pilota goxoko** eta **pala teniseko pilotarekin finalak**

20:30ean **Sin Fronteras** cumbia bolibiarrekin dantzaldia

Oharra: Zortzi terdietatik aurrera, arrain-dastatze mundiala!

EKAINAK 23 IGANDEA "SAN JUAN BEZPERA"

10:00etan **Krossa**. Igeldoko 39. Igoera herrikoa. Ondarretatik Mendizorroztzera (7km). Izena emateko epea 09:00etatik 9:30era izango da. Izen-ematea: Aldez aurretik apuntatuz gero, (www.herrikrosa.eus) 5€ izango dira eta egunean bertan, Ezeiza hotelean, 8€

12:15ean **Igeldoko II. Haur-krossa**

Oharra: 12tan eskolako futbito zelaian beroketa egingo da, puntualak izan!

17:00etan Txaparroen prestaketa

18:30ean Tira-Txina txapelketa

Oharra: Izen-ematea 17:00etan izango da

20:00etan Bokatak egongo dira nahi duenarentzat Din-din elkartean

Oharra: *Eskeko kuadrila 20:00etan elkartuko da afaltzeko*

22:00etan San Juan gaueko koplarien irteera eta San Juan sua

EKAINAK 28 OSTIRALA

16:30ean Euskal Dantza emanaldia, Ieltxoko ikasleen eskutik

18:00etan Haurren pilota-partiduen finalak

19:30ean Ttonttorro txiki eta Ttonttorroren igoera urrezko zezen eta buruhandiek lagunduta animatu, txikiak, zuen trikitixa eta panderoak astintzera!

Ondoren **Lezkarriren** emanaldia eta poteoa **Antigua Band** txarangarekin

23:30etan Kontzertu mundialak Rukula eta Herenegun taldeen eskutik

Ondoren **Dj Piku** izango da 2. gunean

EKAINAK 29 LARUNBATA “SAN PEDRO EGUNA”

11:00tan Hamaiketakoa. Din-Din-era inguratzen den igeldotar ororentzat

12:00etan Herri-kirolak

Aizkolariak :

XABIER ORBEGOZO – ARITZ AZPIAZU

ARKAITZ JAUREGI – OIER KAÑAMARES

Trontzan:

JON LIZARAZU – IÑAKI ENBIL

MIKEL ALTUNA – UNAI LIZARRALDE

Lokotxak:

**ALGEL ALTUNA
GARI GALARRAGA**

14:00etan San Pedro jaietako prozesioa eta paella lehiaketa.

Oharra: Irabazleari San Pedroren giltzak emango zaizkio eta festa guztietan zehar eraman beharko du

18:00etan Umore horia. Aurten ere umorez betetako jolas berriak izango ditugu!!! Animatu eta parte hartu!

Oharrak: Txapela tabernan egongo da talde bezala apuntatzeko aukera, ekainak 23ra arte 14urtetik aurrerakoentzat. Taldekideko 3€ ordaindu beharko da

19:30ean Kalejira txikia, urrezko zezena eta buruhandiekina. Animatu, txikiak, zuen trikitixa eta panderoak astintzera!

20:00etan Eskuzko Pilota-partida ikusgarria

**OJUEL - LIZEAGA
SANTXO - URRUZOLA**

22:00etan Idi-Dema. Patxi Illarreta eta Ignacio Olidenen idiak arituko dira elkarren aurka 2000kg-ko harriarekin

00:00ean Gaupasa. Illuntzean taldearekin eta ondoren **Trikidantz** plaza

Oharra: **Gau Kubatarra** eta **Dj X deMixta** izango dira 2.gunean

EKAINAK 30 IGANDEA

11:00etan Bolo-lehiaketa eta erakustaldia

12:30ean Patata-tortila lehiaketa

13:00etan 3. San Pedrotako oliba jaietsiera txapelketa

17:30ean Toka herrikoia

Oharra: Apuntatzeko epea ordu erdi lehenago irekiko da. Behin lehia hasita ezingo da izenik eman

17:30ean Umeen toka herrikoia

19:00etan Kalejira txikia, urrezko zezena eta buruhandiekien. *Animatu, txikiak, zuen trikitixa eta panderoak astintzera!*

19:30ean Bertso-saioa:

Bertsolariak: **Iker Zubeldia, Eli Pagola, Andoni Egaña eta Aitor Mendiluze.**

22:45ean Su artifizialak

23:30ean Erromeria Elizagoien ahizpen eskutik

UZTAILAK 1 ASTELEHENA “HAURREN EGUNA”

10:00tan KEDADA: Zapia lepora eta etorri Kaxkora!

Ondoren, **Puzgarri festa erraldoia**

Eguraldiak laguntzan badu denok urarekin freskatzera

Oharra: Umeei hamaiketako banatuko zaie

14:00etan Bazkari Herrikoia Igeldoko umeentzat

Oharra: Txarleta beharko da bazkarirako. Kedadan eta bazkalaurretik erosi ahalko dira

16:00etan IPUIN-KONTALARIA: Non da elefante gorria?

17:30ean Merienda goxua egunarekin jarraitzeko

18:00etan Eusko Got Talent!

Ondoren, **Kalejira txikia**, urrezko zezena eta buruhandiekien. Animatu, txikiak, zuen trikitixa eta panderoak astintzera!

*Oharrak: 6 urteik beherakoek heldu batek lagunduta egon beharko dute.
Aldatzeko arropa ekarri beharko da*

20:30ean Eskeko kuadrila elkartuko da afaltzeko

UZTAILAK 2 ASTEARTEA “SANTA IXABEL EGUNA”

17:00etan Kanika-lehiaketa

18:30ean Santa Isabel eskearen amaiera, herritarren parte-hartzearekin

20:00etan Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin. Animatu, txikiak, zuen trikitixa eta panderoak astintzera!

20:30ean Ttonttorro txikiren jetsiera

22:00etan Zaldi-dema. Itxaso Arrutiren eta Talaia jatetxeko abereak ari-tuko dira elkarren aurka 1000kg-ko harriarekin

23:00etan Erromeria Izer eta Alabier trikitilariekin

23:30ean Irrintzi-lehiaketa

00:00an Auresku Herrikoia eta Ttonttorroren jaitsiera

Ondoren **Izer** eta **Alabier**-rekin emango diegu amaiera festei

ONDO PASA JAIK!